



Amnistiaren Aldeko Mugimenduak mobilizazioak iragarri ditu datorren larunbaterako. Abuztuko irteera operazioan errepideak kotxez gainezka daudela baliatuz, Euskal Herrian bizi dugun salbuespen egoera lau haizetara zabaldu eta protesta egingo dute zenbait bidetan.

Barakaldoko AAM-ak **goizeko 10.45etan Herriko Tabernan** finkatu du hitzordua. Bertatik kotxeetan antolatuak Arrigorriagara mugituko dira. Mugimendu antierrepresibo hartako kideek deialdia luzatu diete herritarrei, ahal duenak kotxea hitzordura eramateko, era horretan, guztiok mobilizaziora joan ahal izateko. Gainera gogorarazi dute txaleko **erreflektantea eramatea ezinbestekoa** dela izunak ekiditeko.

Hurrengo irakurketa eta deialdia burutu dute bertatik:



Askatasunaren ateak itxita

Espainiar zein frantziar estatuetakoko gobernuak, bide errepresibo guztiak zabalik dituzte Euskal Herriari burujabetzaren ateak ixteko. Bide horretan beharrezkoa dute independentziaren aldeko mugimendua anikilatzea, desagertaraztea. Horretarako edozer egiteko prest daude eta garbi adierazten dute hori beraien jardunbide errepresiboarekin. Bereziki kezagarria da estatuen aparatu polizial, parapolizial, judizial eta mediatikoek duten inpunitate osoa, muturreko inpunitatea. Guztiak balio du euskal independentismoarekin amaitzeko. PSOE-ren gobernuak ZEN plan makabroaren oinarri eta helburuak berreskuratu ditu, eta gaur egungo fase politikora egokitutako guda zikina egiten ari da euskal independentismoaren aurka.

Horren adibideak? gaur hemen bildu garen pertsonak gara adibide garbietako batzuk. Disidentzia politikoa ezabatzeko alderdi politiko, eragile eta erakundeak legez kanporatu dituzte, euskal militanteak makro-epaiketa politikoetan epaitu eta herriak hautaturiko alkateak espetxean sartu dituzte. Salbuespeneko edozein metodo erabiltzen dute disidentzia ezabatzeko bidean: espioitza eta jazarpen poliziala, kolaborazio eskaera eta legez kanpoko galdeketa kontrolatan, militante independentisten atxiloteta masiboak, inkomunikazioa eta torturak, mobilizazio eta ekimenen debekuak, bortizkeria poliziala, intoxikazio kanpaina mediatikoak...

Kartzela politika hiltzailea indarrean

Preso politiko eta senitartekoen aurka ere, beraien suntsitzeko helburuz salbuespeneko politika oso bat martxan dute bi estatuak. Gaixotasun larriekin aurkitzen diren presoek askatasuna ukatzen diete, espetxe zigorra nahi bezala luzatzen dituzte, muturreko bizi baldintzatan mantentzen dituzte, dispersaturik, urrunduta senitartekoak errepideetan eta preso politikoak espetxean hil nahi dituzte! Guzti hori irizpide politikoen arabera egiten dute! Egoera hau onartezina da! Nola esan dezakete, gainera, zuzenbide estatu batean bizi garela?

Garbi utzi dute bi estatuak apustu errepresiboan sakontzeko hautua egina dutela. Zapatero eta Sarkozyren arteko akordioek, edo egunotan adosten ari diren PP-PSOEren arteko itunek errepresio basatienaren aldeko apustua irudikatzen dute. Euskal herrian, PNV buru dutela, gainontzeko indar erregionalistek ere bat egiten dute estrategia errepresibo horrekin. Hitz politikak eta diskurtso sutuak entzuten dizkiegu, baina aldi berean beraien indar armatu eta mediatikoak jartzen dituzte estatuen errepresio strategiaren mesedetan. Ez diegu onartuko euskal herritarren eskubideak nahi bezela zanpatu ditzaten. Salbuespen egoera honen aurrean altxa egin behar gara! Aski da! oihukatu behar dugu.